



2024

TOLOSAKO BERDINTASUN BEHATOKIA: INAUTERIAK 2024

INAUTERIEN ANALISIA

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. KOMUNIKAZIOA	4
2.1 Liburuxka eta esku-orria.....	4
2.2 Kartela.....	6
2.3 Agerraldiak.....	6
2.3.1 Inauterien berri emateko agerraldia	6
2.3.2 Kabi Alai Kuttuna.....	7
<i>Agerraldi publikoa Kabi Alai Kuttuna iragartzeko.....</i>	<i>8</i>
<i>Nola aukeratzeko da Inauterizale Kuttuna?.....</i>	<i>8</i>
2.3.3 Ostegun Gizeneko omenduak	9
2.4 Hedabideetan	10
2.5 Berdintasun-ikuspegitik ondorio batzuk.....	12
3. EGITARAUA	13
3.1 Pregoia eta txupinazoa	13
3.2 Musika taldeak	14
3.2.1 Gaueko musika: txosnaguneko kontzertuak eta txarangak	15
3.2.2 Gaueko txarangak	17
3.2.3 2024ko, 2023ko eta 2020ko analisi konparatua	17
3.3 Karroza eta konpartsak.....	19
3.3.1 Berdintasun-ikuspegitik ondorio batzuk	20
4. INDARKERIA MATXISTA	21
4.1 Kanpainaren xehetasunak (bideoa eta euskarriak)	21
4.2 Indarkeria matxisten kontrako zerbitzua.....	21
4.3 Indarkeria-protokoloak.....	22
4.3.1 Txosnagunea	23
4.3.2 Udalekoa	23
4.4 Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk.....	24
5. ONDORIOAK	25
6. GEHIGARRIAK.....	27

1. SARRERA

Tolosako udalak 2010. urtetik darama jaietan berdintasun-ikuspegia txertatzen era aktibo batean. Urteetako prozesuari jarraipena eta egonkortasuna emateko asmoz, 2017. urtean Tolosako Jaiei Berdintasun Behatokia diseinatu zen. Behatokiaren helburua berdintasun-politikak modu estrategiko, sistematizatu eta eraginkorrean aplikatzeko tresna izatea da, jaiak berdinzaleagoak izan daitezen. Helburu hori betetzeko, Berdintasun Departamentuak, Jaiak Departamentuarekin elkarlanean, Behatokiaren buru da gainerako udal departamentuen partaidetzarekin.

Ez dugu ahaztu behar Behatokia, epe luzeko ikuspegian, hobekuntza iraunkorrean eta progresibotasunean (funtzioak, eragile partaideak, lanketa-esparruak eta jaiak hazten joango dira) oinarritzen dela. Ideia hori azpimarratu behar dugu, hain zuzen ere, Behatokia udalarentzat eta herriarentzat tresna “bizi” bezala ulertu behar delako; hau da, momentuan momentuko jaietara eta tolosar jendartera egokitu behar da.

Inauteriak aztertzen 2018an hasi zen. Hasieran analisi sinple bat egiten zen. 2020an lehenbiziko aldiz azterketa sakonagoari heldu zitzaion eta 2023an eta 2024an, berriz, azterketa hori errepikatzea erabaki zen. 2024an aztertu diren gaien artean daude gaueko musika, karrozak eta konpartsak, Txupinazoa eta pregoia, komunikazioa eta indarkeriak. Atal guztien amaieran “txalotzekoak” eta “hobetzekoak” taula jaso da. Bertan, arlo horretan berdintasuna bultzatzen dituzten gaiak eta berdintasunaren ikuspegitik hobetu beharrekoak jasotzen dira.

Gora Tolosako Inauteri berdinzaleak!

2. KOMUNIKAZIOA

2.1 Liburuxka eta esku-orria

Liburuxka eta esku-orria sortzeko azpikontratatzan den enpresari jaietako arduradun teknikoak irizpideak ematen dizkio; ondoren, egindako lanari, irizpideak oinarritzat hartuta, oniritzia edo egokitzeak aholkuak ematen dira. Irizpide horiek modu horretan jasotzen dira:

Era berean, publizitate-atalak bat egiten du udalak bere jarduerarako ezarriak dauzkan zeharkako irizpideekin; berdintasunaren alde eta indarkeriaren aurka, besteak beste.

JAJETAKO PROGRAMA OFIZIALAREN EDUKIEN HIZKUNTZA ETA BERDINTASUN IRIZPIDEAK

Jaietako programetan txertatutako informazio orok (testuak, argazkiak, marrazkia, eta abar) bat egin beharko dute Tolosako Udalak euskararen sustapenerako eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako ezarrita dituen irizpideekin, eta hala, alor batean zein bestean jaulkitako ordenantzak bere horretan bete beharko ditu.

Hizkuntzaren kasuan, zehazkiago, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1990eko abuztuaren 10ean argitaratutako ordenatzearen 28. artikulua arabera, euskarak erabilera lehenetsia izango du [...].

Berdintasunari dagokionez, alor honetan lengoaiak eta irudiak duten garrantzia aintzat hartuta, publizitate euskarrietan ezingo da irudi edo eduki sexistarik erakutsi. Horrela, esplizituki gaitzesgarriak diren irudiak baztertzear gain, gizonen eta emakumeen arteko estereotipoak gaindituko dituzten edukiak lehenetsiko dira.

Oniritzi horretarako, Berdintasun Departamentuaren laguntza du; hau da, Berdintasun Departamentuak argazkiak eta testuak gainbegiratzan ditu, eta gomendioak ematen ditu aldaketak egiteko.

Aurten, berriz ere, programan **iruditegi eta hizkuntza ez-sexistaren alde egin den lana goraipatu** behar da. Aurten ere, **emakumeen artean egon daitekeen aniztasuna islatu da eta nabari da emakume helduak ikusarazteko egindako lana**; hau da, beste urteekin konparatuz emakume helduen presentzia aurtengo programan handiagoa da. Bestetik, **emakume musikarien arloan ere garrantzia jarri da**, eta aurtengo programan emakume musikarien kopurua oso esanguratsua eta anitza izan da.



Berriz ere azpimarratu behar da, programak jakin duela **Behatokiak azken urteetan landu dituen gaiak, azpimarratutako praktika onak edo egindako gomendioak irudietan jasotzen, era horretan, berdintasunerako egiten ari den bidean laguntzen ari da**; emakume musikariak, kaldereroak, txistularien bandan neska ikasleak, Pintxana Txaranga, emakume danborrariak eta abar.

Gainera, liburuxkak ***Joka Sano. Ondo pasa, pasa gabe!!!*** kanpaina jaso du. Honekin batera, zerbitzuen direktorioan, Indarkeria Matxisten aurkako gunearen kokalekua beste zerbitzuen maila berean jaso zen. Horretaz gain ere, ‘Gogoan Izan’ atalean ere erasorik gabeko jaiei erreferentzia egiten zaio.

Go goan izan

19:00
Dantzaldia Zerkasua,
Tolosako, Poca Tripa eta
Arco Ite barazkagail.
Beltaketa en Zerkasua con las
chaperas Tolosako, Poca Tripa y
Arco Ite.

19:30
Kontzertuak bisnietan:
Concertos:
Musikak

11:30
Osakel Teatrolari
Tolosakoan kutsatzen.
Osakel Teatrolari Tolosa

19:30
OSTIRAL MEHE
EGUNEKO
DANBORRADA.
Tolosako de Viena Poca

22:30
Aspigi Tolosak
antolatuta. Ostiral Mehe
eguneko jaiak (aldor
ostirak).
Espazio de Viena Poca de al
sektor, organizatu por Aspigi.

22:30
Kontzertuak bisnietan:
Concertos:
Musikak
-15. Erro eta eta Coda Tolosa
-Musikak eta eta eta

08:00
DIANA, Tolosako
Udal Musika
Bandarekin.
Diana a cargo de la
Banda Municipal de
Música de Tolosa.

08:45
Udal Teatrolari Bandak,
otika ibilbidea eginez,
Inauterietako Dantzak joko
du.
Teatrolari, Dantzak de Camara

10:00
Txarangen itiera.
Txaranga de Camara

ERASORIK GABEKO JAIEN ALDE, JARRERA AKTIBOA IZANI!

POR UNAS FIESTAS LIBRES DE
AGRESIONES SEXISTAS, ¡ACTÚA!

Indarkeria matxisten
aurkako guneak
Espazio de informazio y atención
T. 747 420 488

11-12 Otsailak
Tolosa

Informazio gunea (Tolosa)
22:00 - 01:00

Arreta gunea
(AMARRAS) 01:00 - 05:00

943 675 858
Tolosa Udalak
Indarkeria Matxisten
Aurkako Gunea

JOKA SANO
Ondo pasa, pasa gabe!!!

Zerbitzuak

1 Zerkasua
2 Zerkasua
3 Zerkasua
4 Zerkasua
5 Zerkasua
6 Zerkasua
7 Zerkasua
8 Zerkasua
9 Zerkasua
10 Zerkasua
11 Zerkasua
12 Zerkasua
13 Zerkasua
14 Zerkasua
15 Zerkasua
16 Zerkasua
17 Zerkasua
18 Zerkasua
19 Zerkasua
20 Zerkasua
21 Zerkasua
22 Zerkasua
23 Zerkasua
24 Zerkasua
25 Zerkasua
26 Zerkasua
27 Zerkasua
28 Zerkasua
29 Zerkasua
30 Zerkasua
31 Zerkasua
32 Zerkasua
33 Zerkasua
34 Zerkasua
35 Zerkasua
36 Zerkasua
37 Zerkasua
38 Zerkasua
39 Zerkasua
40 Zerkasua
41 Zerkasua
42 Zerkasua
43 Zerkasua
44 Zerkasua
45 Zerkasua
46 Zerkasua
47 Zerkasua
48 Zerkasua
49 Zerkasua
50 Zerkasua
51 Zerkasua
52 Zerkasua
53 Zerkasua
54 Zerkasua
55 Zerkasua
56 Zerkasua
57 Zerkasua
58 Zerkasua
59 Zerkasua
60 Zerkasua
61 Zerkasua
62 Zerkasua
63 Zerkasua
64 Zerkasua
65 Zerkasua
66 Zerkasua
67 Zerkasua
68 Zerkasua
69 Zerkasua
70 Zerkasua
71 Zerkasua
72 Zerkasua
73 Zerkasua
74 Zerkasua
75 Zerkasua
76 Zerkasua
77 Zerkasua
78 Zerkasua
79 Zerkasua
80 Zerkasua
81 Zerkasua
82 Zerkasua
83 Zerkasua
84 Zerkasua
85 Zerkasua
86 Zerkasua
87 Zerkasua
88 Zerkasua
89 Zerkasua
90 Zerkasua
91 Zerkasua
92 Zerkasua
93 Zerkasua
94 Zerkasua
95 Zerkasua
96 Zerkasua
97 Zerkasua
98 Zerkasua
99 Zerkasua
100 Zerkasua

2.2 Kartela

Bigarren urtez, Inauterietako kartela lehiaketaren bitartez aukeratu zen. 2022ra arte, Tomas Hernandez Mendizabalek sortzen zituen, baina haren heriotzarekin batera kartelaren aukeraketa-sistema aldatzea erabaki zen. Horrela, aurtengo irabazleak Irene Elizegi eta Xabier Isasti izan dira, Txilaba izeneko kartelarekin.

Pasadan urtean bezala, **kartel-lehiaketarako irizpideek berdintasuna bermatzeko genero-irizpideak jaso dituzte**. Beraz, egileei argi uzten zaie, parte hartzeko, haien lanek berdintasun-irizpideak bete behar dituztela. Kartel irabazleak irizpideak bete ditu: **irabazi duen kartela ez da sexista**.



Horretaz gain, 51 pertsona aurkeztu dira lehiaketa honetara, horietatik 11 emakumezkoak izan dira, 38 gizonezkoak eta bikote misto 1. Ikus daitekeenez emakumeen presentzia, gizonezkoenarekin alderatuta, askoz baxuagoa da.

2.3 Agerraldiak

2.3.1 Inauterien berri emateko agerraldia

Urtero bezala, aurten ere, Tolosako Inauteriak iragartzeko agerraldi publikoa egin da. Bertan, udal-ordezkaritzaz gain, herriko hainbat eragile elkartu ziren. Aurten, azkeneko urteetan ez bezala, agerraldi publikoaren parte-hartzea genero ikuspegitik ez da asko zaindu. Aurtengo kasuan, **agerraldia ez da parekidea izan: 4 emakumek (% 31) eta 9 gizonek (% 69) osatu dute agerraldia**.



Iturria: Tolosaldeko Ataria

Esan behar da azkeneko urteetan, agerraldian inauterietako kartelaz gain, 'Joka sano' kanpainako kartela ere agerian egoten zela, aurten aldiz kartela ez da ikusgai egon. Era berean, bi gune moreren berri eman da eta indarkeria matxistarik gabeko inauteri batzuen aldeko deia egin da.

«Tolosak erantzun irmo bezain azkarra eman izan du gisa honetako gertakarien aurrean. Espero dut halakorik ez gertatzea. Horretarako garrantzitsua izango da gutariko bakoitzaren kontzientziazio lan aktiboa»

Gai honi dagokionez, Behatokiak agerraldietarako emandako berdintasun-gomendio guztiak¹ sistematizatuta eta barneratuta zeudela pentsatu bazuen ere, azkeneko urteetako ibilbidea ikusita, aurtengo adibideak zer pentsatu eman digu.

2.3.2 Kabi Alai Kuttuna

Aurten, Kabi Alai Kuttuna Inauterietako kartel irabazlearekin batera iragarri da, Zerkausion. Agerraldi hori Udala eta Kabi Alai elkartearen artean antolatu da aurkezpen-ekitaldi bateratua egin asmoz. Ekitaldia Kabi Alaiko Ostegun Gizeneko Udalbatzako alkatea eta zinegotziek gidatu dute eta Udaleko Berdintasun eta Kulturako zinegotzia ere egon da.

2024ko Kabi Alai Kuttuna **Veleta Elkarte Gastronomikoa** izan da. Aitortza hau Veleta Elkarteak hamarkadetan zehar haur-danborrada eta -jaialdia antolatzeagatik eta haurrak inauterien parte izan daitezen egiten duten lanagatik izan da. Ohore horren parte ere bada Ostegun Gizenean Inauteriei hasiera ematen dion suziria botatzea.



Iturria: Ataria

¹ Hauek izan dira orain arte Behatokitik egindako gomendioak: agerraldia berdinzalea edo parekidea izatea, 'Joka sano' kanpaina edo honi keinurik egingo dioten euskarriak egotea eta agerraldian indarkeriarik gabeko jaien alde egitea.

Agerraldi publikoa Kabi Alai Kuttuna iragartzeko

Aurten, Kabi Alai Kuttunaren berri emateko egin den agerraldi publikoan **irudia berdinzalea izan da, azkeneko urteetan bezala**. Sei lagunek parte hartu dute agerraldian: Kabi Alaiko bazkideak diren Patxi Amiano, Ainhoa Onsalo eta Euge Zabala, Velatako ordezkariak eta bazkideak Ibane Imaz eta Iker Galarza eta Udal zinegotzia den Goiuri Ezeiza.

Azkeneko urteetan bezala (2017, 2018, 2019, 2020, 2022), Kuttuna izendatzeko egiten zen **agerraldi publikoan parekidetasun irudia barneratuta egon dela** esan daiteke, zalantzarik gabe azkeneko urteetan hau zaindu baita. Horrekin lotuta, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren inguruan *Kuttuna* omenaldiak gaiarekiko konpromisoa eta sentsibiltatea adierazi da zinegotziaren ahotsean. Horretaz gain, partaide guztiek 'Joka sano' kanpainaren pegatinak jantzita izan dute.

Nola aukeratzen da Inauterizale Kuttuna?

Kuttuna izendatzeko prozesuan indarrean dauden irizpideak honakoak dira:

- Tolosarra izatea
- Adin nagusikoa
- Inauteriei denbora ematea

Dirudienez, **irizpideen artean ez dago berdintasuna** kontuan hartzen duen irizpiderik. Bestalde, Kuttuna aukeratzeko prozesua irekia da; alegia, Kabi Alaiko edozein bazkidek egin dezake proposamen bat. Elkartean, jatorrian, orri bat jartzen zen eta bertan edozein bazkidek jar zezakeen bere proposamena. Gaur egun emailaz egiten da. Gero afari baten bueltan proposamen bakoitza defendatzen da eta bertaratzen direnen artean aukeratzen da urteko Kuttuna².

Gai honi dagokionez, **berdintasuna bultzatuko duen irizpideren bat kontuan hartzea interesantea litzateke**, hain zuzen ere, urtez urte aitortzen arrakala handitzen doalako. Nolabait, Kabi Alai Kuttuna elkarte batek egiten duen aitortza bat da, baina duen oihartzuna handia izateaz gain, gai publiko bat ere bada. Nolabait, Kuttunak Inauterien hasiera iragartzen du eta eremu publikoan espazioa eta aitortza ematen zaizkio. Beraz, Behatokiaren aburuz, gai honi heltzea gero eta premiazkoagoa da.

² Kuttuna 2011n sortu zen.

Datu bezala, hemen ikusten dugu azkeneko urteetako Kabi Alai Kuttunaren zerrenda³:

		Gizona	Emakumea	Mistoa
2024	Veleta elkarte			X
2023	Antxon Elozegi	X		
2022	Tolosako herria		X	
2020	Incansables txaranga	X		
2019	Zaldunita taldea	X		
2018	Berazubi karroza			X
2017	Mari Kruz Iribar		X	
2016	Gure Kaiola	X		
2015	Joaquín Izagirre	X		
2014	Kanu y Guiu	X		
2013	Poca Tripa txaranga	X		
2012	Eduardo Chocano	X		
2011	Grupo Scout San Bernardo			X
GUZTIRA		8	2	3

2.3.3 Ostegun Gizeneko omenduak

Udaletxeko udalbatza-aretoan, Inauterietako udal-korporazioa parodiatzen duen Kabi Alai izendatutako [Kabi Alai Kuttunari oroigarri](#) bat ematen dio omenaldiaren lekuko lege. Udal-korporazioa parodiatzeko ardura Kabi Alai elkarte gastronomikoaren esku gelditzen da.

Urtero, Inauterietako korporazio gisa **parodia horretan parte hartzen duten pertsona gehienak gizonezkoak dira; aurtan 5 emakumek eta 11 gizonek parte hartu dute**. Hala ere, aipatu behar da **Kabi Alairen eta Behatokiaren** azkeneko urteotako **elkarlanaren ondorioz, emakumeen parte-hartzea korporazioaren rolean igotzen joan dela, hain zuzen ere, udalaren konpromisoagatik**.

Igoera horren zergatietako bat udal-korporazioaz mozorrotzeko gonadun arropak lortzean egon da. Hau da, Kabi Alai Behatokiari adierazi zion emakumeak parte hartzeko prestutasuna zutela, baina emakumezkoek jantzi nahi zituzten arropak (gonadun trajea) jostea garestiegia zen. Ondorioz, udalari horretarako laguntza eskatu zitzaion. Eskaera hori baloratu ondoren, Udalak soberan zituen gonadun arropak Kabi Alairi dohaintzan eman zizkion

³ Hemendik atera da informazioa zerrenda hau osatzeko: <https://ataria.eus/tolosa/1645525248618-herriari-aitortza-egingo-dio-2022ko-kabi-alai-kuttunak> eta <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/2018/02/08/reconocimiento-carnaval-politicamente-incorreto-3946367.html>

emakumeen parte-hartzea sustatze aldera. Irekitako ibilbide hori jorratzen jarraitzen dute udalak eta Kabi Alaik, esparru honetan emakumeen parte-hartzea handitzen joateko. Aurten, udalak 2 traje gonadun gehiago eman ditu.

Parodia horretan, korporazioaz gain, beste rol batzuk daude, hala nola, udaltzainak eta atezainak. Kasu honetan **denak gizonezkoak izan dira**.



Omenduen kasuan, Veletako bazkide beteranoekin batera danborradako jantziekin zeuden haurrak egon dira. Veletako bazkide beteranoen artean emakume bat ere egon da.

2.4 Hedabideetan

Baiezta daiteke, azkeneko urteetan lez, Tolosaldeko hedabideek genero-begiradatik informatzen dutela Inauteriez, alde batetik, emakumeek egiten dituzten jarduera edo ekintzak bistaratu, gertatzen denaren inguruko genero-hausnarketa eginez eta erabilitako argazkietan emakumeen eta gizonen presentzia zaindu dutela, hala nola, emakumeak ohikoak ez diren ekintzetan erakutsi dituzte. Hau da, urtero bezala, Atariak Inauterien aurretik emakumezkoak elkarriketatu ditu Inauteriekin lotutako erreportajeak egiterako orduan. Aurten, berriz ere, eta aspalditik behatokiak egindako gomendioari jarraituz, [Mertxe Urkola Pikabea](#) eta [Mila Garcia de Iturrozpe](#) izan dira elkarriketatuak; lehenbizikoa, Inauterietako moztaroen jostuna izateagatik, eta bigarrena, Emakumeen danborradaren harira.

Atariak azkeneko urteetan kazetaritza beste modu batean egiteko konpromisoa hartu duela agerikoa da. Bistan da, kazetaritza egiteko moduan genero-ikuspegia txertatu duela. Horrela, **Inauterietako iruditeria berriak eraikitzen laguntzen ari dela ezin da ukatu.** Iruditeria berriak sortzeko eta indartzeko lan horretan, emakumeak eremu eta ekintza

desberdinetan ikusarazi dituzte eta gertatzen ari denaren genero-ikuspegia txertatzen dute; modu horretan, errealitateari fidelagoa den narrazioa eskaintzen dio eta gertaerak ulertzeko gakoak ematen ditu. Ondorioz hedabideak jaiak berdinzaleagoen aldeko bidean tresna esanguratsuak direla baieztatzen dugu.

Aurten ohartu gara, halaber, 28Kanalak [Inauterietako kartelaren iragarpenean](#) egindako lanketan irabazleen berri emateko orduan bikote bat izan dela adieraztean bikote mistoa izan dela zehaztu duela, eta biei hitza eman die modu parekidean.

Udala Inauterien berri emateko ere hainbat sare sozial erabiltzen ditu, hala nola, X, Youtube, facebook eta Instagram. Sare sozialetan, jakina denez, argazkiek gehienetan testuak baino garrantzia handiagoa dute. Hori dela eta, **irudietan emakumeak eta horien aniztasuna bermatu zirela esan daiteke**. Bestalde, aurreko urtearekin alderatuz, aurten sare sozialen bitartez ez da indarkeriaren kontrako kanpainarik zabaldu. Horretaz gain, aurreko urtean bezala, Inauteriak zirela aprobetxatuz, ez da 2023ko Behatokiko txostenen berri eman udal-webgunean.



2.5 Berdintasun-ikuspegitik ondorio batzuk

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Liburuxkan eta esku-orrian genero-ikuspegia txertatzeko lan handia egin da, eta orain arteko iruditegi eta hizkuntza ez-sexista bermatzeaz gain, emakumeen eta gizonen irudi berdinzaleak eta estereotipoak gainditzen dituztenak erakusteko ahalegin nabarmena egin da. Gainera, indarkeria matxistaren aurkako kanpainaren berri eman da eta indarkeria matxista informazio- eta arretagunea mapan kokatu da.	Inauterizale Kuttunaren inguruan ez da berdintasun-ikuspegia txertatu. Hau da, aukeraketan ez da genero-irizpiderik txertatu; ondorioz, arriskua dago genero estereotipoak erreproduzitzeko, alegia, gizonezkoen alde egitea. Era horretan, emakumeek inauterien testuinguruan egiten dituzten ekarpenak ezkutuan eta aitortza publiko gabe gelditzeko arriskua iraunarazten da. Hobetzeko, Kuttunaren aukeraketan berdintasun-irizpideak txertatzea gomendatzen dugu.
Inauteriak eta Kabi Alai kuttuna aurkezteko agerraldian berdintasun-irizpideak eta jaietako indarkeria matxistaren kontrako irizpide guztiak sistematizatuta eta barneratuta egon dira.	Ostegun Gizeneko omenduetan, nahiz eta emakumeen partaidetza igo, jarduera maskulinizatua izaten jarraitzen du. Udal gobernuak parekideak diren garai hauetan, parodia eta errepresentazio publikora salto egiteko orduan, gizonen nagusitasuna nabarmentzen da, eta horrek berdintasun-arloan egindako aurrerapausoak ezkutuan gelditzea dakar.
Ostegun Gizeneko omenduen agerraldian gero eta emakume gehiago daude korporazioan.	Korporazioan emakumeak txertatzeko egin den lanarekin jarraitu eta egon daitezkeen zailtasunak identifikatzen jarraitu.
Iruditeria berdinzaleago baten alde Tolosako Atariak egiten duen lana txalotzekoa da, bai emakume anitzen presentzia ikusarazteari eta aitortzeari dagokienez, bai indarkeria matxistaren kontra egiten duen lanketari dagokionez.	

3. EGITARAUA

3.1 Pregoia eta txupinazoa

Urtero bezala, Kabi Alai elkarteak arduratu da Inauteriei hasiera emateaz, ohikoa den Inauterietako korporazioak egiten duen pregoiarekin eta ondorengo aldarriarekin. Usabal kiroldegia hainbat hilabetez itxita egon ostean, herritar askok kilo batzuk hartu dituztela oinarri hartuta [parodia egin](#) dute. Ondorioz, udalbatzari azterketa medikoa pasa diete eta kilo batzuk jaisteko helburuarekin plaza guztia aerobik egiten jarri dute.



Parodia aprobetxatu dute urteetan alkatea izan den Patxi Amiano “jubilatzeke” eta **ondorengo urtean alkatea izango den Ainhoa Onsalo aurkezteke**. Modu honetan, **lehenbiziko aldiz emakume batek izango du inauterietako ardura hau**.



Lehengo atalean adierazi den bezala, **Inauterietako korporazioan eta parodian gero eta emakume gehiagok hartzen dute parte; aurten 8 emakumeek** parte hartu dute eta 15 gizonek. Hazkunde hori udaletxeak mozorrotzeko eskainitako gonadun traje gehiago eskura jartzearen ondorioz izan da; aurten, lehen aipatu den lez, 2 traje gehiago eman dizkio Kabi Alairi.

Bestetik parodian parte hartu duten kide **nagusiek ‘Joka sano’ kanpainaren pegatinak paparrean** eraman dituzte eta beste batzuk kanpaina bereko txapak. Modu honetan, jaietan indarkeria matxistaren kontrako konpromisoa adierazi dute.

Txupinazoa ‘Veleta AizOrratz’ elkarteak bota zuen, horretarako balkoian elkarteak ordezkatzeko **3 kide egon dira; 2 gizon eta emakume 1**. Horietatik, gizon batek hitza hartu du eta besteak suziria bota du.



Iturria: Tolosaldeko Ataria

Amaitzeko Kabi Alaiko txarangak musika jarri du festari hasiera emanez. Txaranga hau gizonen bakarrik osatuta egon da.

3.2 Musika taldeak⁴

Atal honetan, **gauean zehar programatu diren kontzertuak⁵ kontuan hartuko dira**. Gaueko kontzertuak esaten dugunean, 19:00etatik aurrera programatu diren musika-jarduerak ari gara. Aurten, **bigarren aldiz azterketa honetan, ordu-tarte horretan jo duten txarangak ere aztertu dira**. Momentuz, gai honetan egiten den azterketa guztiz kuantitatiboa da eta kontzertuen eta txarangen analisia egiteko orduan, musika-taldeen sexu osaera bakarrik hartu da kontuan; alegia, ez da bestelako irizpiderik kontuan hartu analisi hau egiteko orduan.

⁴ Musika taldeen datuen taula eranskinetan gehitu da.


⁵ Gauetako musika txosnaguneak antolatzen du. Hala ere, txarangak ez dira txosnagunearen ardura.

3.2.1 Gaueko musika: txosnaguneko kontzertuak eta txarangak

Datu horiek aurkezten hasi aurretik, ohar bat aipatu beharrean gaude: musika-ekitaldietako sexuaren arabera datuak lortzea ez da erraza izan, txarangetako kideen kopurua oso aldakorra izan daitekeelako ekitaldi batetik bestera. Bestalde, txosnaguneko kontzertuak udalak antolatzen ez dituenek, horien inguruko informazioa eskuratzea zailagoa da. Horregatik, Behatokiko datuek gorabeheraren bat izan dezakete⁶. Hala ere, egon daitezkeen gorabeherak ez dute joera eraldatzeko gaitasunik.

Ondoren, gaueko musikari dagokionez, txosnagunean 18 musika-jarduera programatu dira eta txarangak 9 aldiz programatu dira (ez dira kontutan hartu dantzaldietan parte hartu duten txarangak).


Hau argituta, adieraz dezakegu, 2024ko datuen arabera, Inauterietan **programatutako musika maskulinizatuta egon dela**. Datuen arabera, jo dutenen % **90 (163) gizonezkoak** izan dira eta % **10 (18) emakumezkoak**. Behatokitik egindako analisietan sarritan aipatu da gaueko kontzertuak zein txarangak bereziki maskulinizatutako musika-eremuak direla, eta horren erakusgarri dira datuak ere.



28 musika-ikuskizun egon dira guztira, ekitaldi horietan, **gizonez bakarrik osatutako taldeak % 60 (15)** izan dira, eta % **32 (8) mistoak eta %8 (2) emakumez osatutakoak**.


⁶ Txosnetako kontzertuen kasuan ezin izan dira hiru kontzertu analizatu.

MUSIKA TALDEEN OSAERA SEXUAREN ARABERA




Talde mistoei (taldean neska, mutilak edota beste genero batzuk) dagokienez, **% 87 (7)** **maskulinizatuak izan dira** eta **% 13 orekatuak (1)**. Datu horiekin, agerian gelditzen da **ez dela talde feminizaturik** egon eta emakumeen presentzia orokorrean oso txikia izan dela.

TALDE MISTOEN OSAKETA



3.2.2 Gaueko txarangak

Bigarren aldiz, Behatokitik txarangen analisi kuantitatibo bati heldu zaio. Txarangak, oro har, oso maskulinizatuta daudela jakina da, baina usteetatik haratago joatea ere komeni da egoerei aurre egin nahi bazaie. Analisi honetan kontuan hartu behar da kasu batzuetan ezin izan dela txaranga batzuen kideen kopurua kontrastatu; beraz, txarangen datuetan gorabehera batzuk egon daitezke. Hala ere, zenbakiak zeintzuk diren ikusita, egon daitekeen zehaztasun faltak ez du hausnarketa asko aldatuko. Gaiarekin jarraituz, gauetan programatutako txarangen analisi kuantitatiboaren emaitzak honakoak dira:





Guztira, gauean jo duten **txarangen**, % **93 gizonezkoak** izan dira (112 musikarietatik 104). **Emakumeen** partaidetza, beraz, % **7 izan da** (8 emakume). Aurretik aipatu bezala, datuok gutxi gorabeherakoak direla hartu behar dugu kontuan.




3.2.3 2024ko, 2023ko eta 2020ko analisi konparatua

Alderaketa irizpide berdinekin egin ahal izateko, 2024ko eta 2023ko datuei txarangen datuak kendu zaizkie. Horretaz gain, aipatu behar da 2020an 15 musika-jarduera programatu zirela, 2023an 16 eta 2024an 20.

2020ko eta 2023ko eta 2024ko datuak alderatuta, emakumeen musikarien ehunekoa urtez urte jaisten ari dela ikusten da.



Aldiz, programatzen diren kontzertuetako taldeen eraketan **emakumez bakarrik osatutako taldeak igotzen ari dira.**



3.3 Karroza eta konpartsak

Aurten, bigarren urtez, **epaimahaia udaleko 3 langilek eta, berritasun bezala, Berdintasun eta Jaietako zinegotziak osatu dute**: jaietako teknikariak eta gazteriako 2 teknikariak. Epaimahaiak **beste irizpide batzuekin batera berdintasun-irizpideak izan ditu karrozak eta konpartsak baloratzeko**. Berdintasun irizpideek honela diote:

Irizpideen helburuak:

- Tolosako jai-eremuan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunezko harremanak indartzea.
- Emakumezkoen parte hartzea eta protagonismoa nabarmentzea, kultura- eta jai-dinamiketan, eta, oro har, eremu publikoan.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta sexu-genero aniztasunaren aldeko mezu sinbolikoen eta kulturalen sorrera sustatzea jaietako jardueretan.

Zer da baloratu behar dena berdintasun irizpideen arabera?

- Oro har, modu positiboan baloratuko dira harreman parekoak erakusten dituzten karrozak eta konpartsak, edota emakumezkoen partaidetza bultzatzen dutenak eta emakumeenganako edo bestelako identitate sexualenganako (lesbianak, homosexualak, transexualak, intersexualak...) pentsamolde diskriminatzaileak saihesten dituztenak.

Zer ez den berdintasuna:

- Emakumeen gorputzaren balore sexuala nabarmentzea gainerako giza gaitasunen eta ezaugarrien gainetik.
- Mezu baztertzailak, sexistak, homofoboak eta arrazistak zabaltzea.

2024an 22 karrozek eta 45 konpartsek parte hartu dute lehiaketan. Lehenago azaldutako irizpideak kontuan hartuta, epaimahaiak karrozen kategorian “Habemus Amam”-i eman dio lehenbiziko [saria](#). Bigarren saria “Aquarium”-entzat izan da eta hirugarrena “Rafa txokolategia”-rentzat. Konpartsa sariduna “Tenfe” izan da.

Udalak saria guztiak argudiatu ditu eta lehenbiziko sariaren inguruan esan zena azpimarratuko da: “Inauteriek hori ere behar dute. Antzezlan originala sortu dute, estilo ezberdinak uztartuz: koreografiak gain, jendearen parte hartzea bilatu dute, ikusleak ere abesten jarrita; ikuskizunaren zati batean txirula ere jo dute. Mezuak ere ondo josita egon dira parodiaren barruan, eta euskara maila ona erakutsi dute. Mozorroak sortu egin dituzte. **Emakumeen ahalduntze bat ere erakusten du**”.

Saridun guztiak talde mistoak izan direla nabarmendu behar da, eta misto izate horretan emakumeen kopurua altua izan da.



3.3.1 Berdintasun-ikuspegitik ondorio batzuk

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Inauterietako korporazioan parte hartzen duten emakume kopurua mantendu da, 5 izan dira. Inauteriei hasiera emateko Kabi Alaik egiten duen parodian emakumeek gero eta protagonismo gehiago dute.	Txupina eta pregoian nahiz eta emakumezkoen partaidetza igotzen joan, partaidetza ez da parekidea izan. Egokia litzateke hori bermatuko duten irizpide batzuk edo plan bat ezartzea. Parekidetasun- eta genero-irizpideak sistematizatu ezean, garaian garaiko antolatzaileen sentsibilitatearen pean egongo da.
Parodian hurrengo urtean alkatea emakumezko bat izango dela publiko egin da.	Programatutako musika maskulinizatuta egon da. Egokia litzateke txosnagunearekin udalak dituen irizpideak partekatzea eta sinergiak bilatzea.
Karrozetako eta konpartsetako epaimahaiak berdintasun-irizpideak kontuan izanda banatu ditu sariak. Eta balorazioetan ikuspegi hau sozializatu da.	Gauetan programatu diren txarangak guztiz maskulinizatuta egon dira. Datuak ikusita, gai honi poliki-poliki heltzea komeniko litzateke.

4. INDARKERIA MATXISTA

4.1 Kanpainaren xehetasunak (bideoa eta euskarriak)

Urtero egiten den bezala, Udaletik Berdintasun Departamentuak zuzentzen eta diseinatzen duen sentsibilizazio kanpaina bat bultzatu da.

Dagoeneko sustraituta dagoen eta zeharo ezaguna den ‘Joka Sano!’ Kanpainak honako euskarriak izan ditu:

- **Joka sano! Pegatinak:** udal-eraikin publiko guztietan eskura egon dira (Kultur Etxea, UDATE, Musika Eskola, Gizarte Zerbitzuak). Horretaz gain, Ailaket zerbitzuan (gazteen Botiltzarrean banatzeko), Kabi Alai elkarteko eta karroza eta konpartsen ordezkarien artean ere banatu da.



- **‘Joka sano!’ kartelak eta iragarkiak:** inauterietako programan eta herriko panel elektronikoetan jaso da, eta tabernetan eta merkataritzan banatu dira.



- **Puntu morea eta kartelak:** udal-eraikin publiko guztietan, saltoki eta tabernetan eskuragarri egon dira.

4.2 Indarkeria matxisten kontrako zerbitzua

Indarkeria matxisten kontrako guneak: zerbitzu hau bigarren aldiz jarri da. Oraingo honetan, zerbitzua zabalagoa izan da, bi egunetan jarri da eta bi eremu desberdinetan. Informazio Gunea izeneko zerbitzua otsailaren 11n eta 12an egon zen 22:00etatik 01:00etara Triangulo

plazan eta Arreta Gunea 01:00etatik 05:00ak arte Andragoran. Gune horien helburua Indarkeria matxistaren inguruan informazioa, prebentzioa, aholkularitza eta arreta ematea izan da.

Zerbitzu honen berri Inauterietako programan dagoen mapan zehaztu da eta, horretaz gain, programan ere 'Joka sano' kanpainako irudian jarri dute. Bestetik, berdintasun-arloko kontaktu guztiei banatu zitzairen korreoaz, eta sare sozialetan zabaldu zen. Horretaz gain, tabernariei eta ikastetxeei ere eman zaie horren berri.



Zerbitzuarekiko balorazioa bi iturritatik edaten du. Alde batetik zerbitzua eman duen elkarte, Emagin, eta bestetik, Berdintasun Kontseilua. Emaginen aburuz Informazio Gunera jende asko hurbildu da eta Arreta Gunera inor ez. Hurrengo urterako, zerbitzu honen inguruko publizitate gehiago egitea gomendatu dute, hain zuzen ere, Inauterietan kanpoko jende asko gerturatzen delako; beraz, publizitatea ezin da herrira bakarrik mugatu. Bestetik, Berdintasun Kontseiluak positiboki baloratu du Arreta Gunera inor hurbildu ez izana, seinale zerbitzu horren beharrik ez dela izan.

4.3 Indarkeria-protokoloak

Inauterietan bi indarkeria-protokolo egon dira indarrean. Alde batetik, udaletxeko indarkeria-protokoloa, herri mailakoa berau. Bestetik, Txosnaguneko eragileetako batek diseinatutakoa eta txosnaguneko eremuan indarrean egon dena.

4.3.1 Txosnagunea

Txosnagunea momentu honetan ez da gune bateratu bat; hau da, bi eragile ezberdinek osatzen dute espazioa. Banaketa hori gertatu denetik eragileetako batek udalaren indarkeria matxistaren aurkako kanpaina eta protokoloa berea egiten du eta haien hitzetan “guztien batasuna erdigunean jartzea delako helburua eta ez dutelako protokoloen arteko gerra bat egin nahi”. Beste eragileak, *Itaia Emakumeon Antolakunde Sozialistak* beraiek osatutako [protokoloari](#) lehentasuna ematen dio. Hala ere, bi eragileen artean gutxieneko adostasun batera heldu da hainbat egoeraren aurrean. Halaber, Txosnagunean ‘Joka sano!’ kartelak ikusgai egon dira eta pegatinak banatu dira.

Udalaren ekimenez, Itaia bere protokoloaren berri eman zion udalari aurreko Inauterietan, eta beraien esku-hartzea zein zen jakinarazi zion.

4.3.2 Udalekoa

Tolosako udalak 2013tik sexu- eta genero-indarkeriaren aurkako protokoloa du. 2017an “Udal-zerbitzuen betebeharrak” protokoloa jaien testuingurura egokitu zuten, 2020an, Jailetako indarkeria protokoloa berraztertu zen eta Tolosaldeko Asanblada Feministarekin intentsitate baxuagoko erasoei publikoki nola erantzun adostu zen.

Protokolo horretan udal-zerbitzuen betebeharrak zeintzuk izan behar duten azaltzen da. Batetik, emakumeari eman beharreko asistentzia; berau festaz kanpoko kasuen berdina izango da. Bigarrenik, egoerari/informazioari eman behar zaion tratamendua azaltzen da. Udaltzaingoak informazio jaso ondoren, Alkateari, Jai eta Berdintasun Departamentuetako zinegotziei gertatutakoaren berri emango diela jasotzen da. Hirugarren atalak, deialdi publiko-bateratuari egiten dio erreferentzia. Udalaren, Mugimendu Feministaren eta Tolosako emakume-elkarteen artean deialdi bateratu bat egingo da. Kontzentrazioa erasoa gertatu ondoren 24 ordura egingo da, 19:00etan Udaletxe aurrean.

Berriazko protokolo horren bitartez eragile bakoitzaren jarduna arautu da; udal-eragile, Mugimendu Feminista eta emakume-elkarte eta jaietan parte hartzen duten eragileena.

Jaietan protokoloa indarrean jarraitzea balio handiko urratsa da indarkeria sexistaren gaian: udalak jaietan erantzun koordinatu bat emateko konpromisoa hartzen du, lehentasunezko gaia dela aitortuta. Arlo horretan jaien aurretik eta bitartean koordinazioa garrantzitsua da prebentzioa eta arreta-lanak aurrera eramateko. Ondorioz, udal-arloek parte hartzen dute: Gazteria, Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa.

Protokoloaren esparruan eta indarkeriaren arretarenean eta prebentzioarenean aurrean Udaltzaingoari prestakuntza zehatza eman zaio eta bestalde, Inauterietan lehen aldiz tabernariei berriazko protokoloa bidali zaie gutun baten bitartez; horretan, Gune Morearen

berri ere eman zaie. Prebentzioan egiten denarekin jarraituz, Gazteriaren arlotik ikastetxei bidaltzen zaien prebentzio-gutunean Gune Morearen informazioa ere gehitu da.

Aurten sexu-askatasunaren kontrako **3 eraso** salatu dira. Horren aurrean, Tolosako Asanblada Feminista, Tolosako Inauterietako hainbat eragile eta Tolosako Udalak **arbuiaitzeko deialdia** egin dute zezen plazan. Horretarako zezen festa eten egin da.

Egindako ekintza hau oso ongi baloratu da, dirudienez zezen plazara, hau da, arbuiaitze ekintza festa gunera eramán izana egokia izan da. Nolabait, modu honetan Udaletxeko elkarretaratzera hurbilduko ez zen jendearengana heldu da. Horretaz gain, ekintzak harrera ona izan du eta txalo artean hartu dute.



4.4 Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Udalak orain arteko indarkeriaren kontrako ibilbidearekin jarraitzen du, bide ona dela baloratuta. Ibilbide hau egonkortuta dagoela esan daiteke.	Indarkeriari aurre egiteko gida gaurkotu.
Protokoloaz gain, sentsibilizazio kanpainak garrantzia du (Joka Sano) eta, horretarako, euskarri eta kanal ezberdinak erabiltzen dira. Eremu hau ere egonkortuta dago.	Txosnagunearekin harreman egonkorak eraikitze eta mantentzeko saiakerarekin jarraitu indarkeria matxistari elkarrekin aurre egiteko.
Indarkeria matxistaren inguruko informazio eta arreta gunea bigarren urtez jarri da. Momentu honetan, zalantzan jartzen ez den baliabide bat da.	Tabernariekin edota gaueko aisialdiko gunekoekin formazioa egin, eta protokolo egoki bat definitu.
Inauterietan gertatutako indarkeria kasuaren aurrean, arbuiaitze manifestazioa zezen plazara eramán izana balorazio onak izan ditu, bertan izan duen harrerarengatik.	

5. ONDORIOAK

Behatokiak, 2024an, hirugarren aldiz aztertu ditu Inauteriak berdintasun-ikuspegitik. Hiru urtez Inauteriak aztertzeak konparatzeko informazioa ematen du, baita joerak ikusteko lehenbiziko zantzuak identifikatzen hasteko ere.

Aurtengo analisiak **jarduera batzuk sistematizatuta** daudela adierazten digu, hala nola, indarkeria, karroza eta konpartsen saria edo komunikazioa. Azken gai hau San Joanetan sakonki landu zen neurrian, prozedurak Inauterietara hedatu ziren. Hala ere, arlo bat ez da beste urteetan bezala zaindu, hain zuzen ere, Inauteriaren berri emateko agerraldia. Kasu horretan, parekidetasun-irudia ez da bermatu. Adibide horrek pistak ematen ditu berdintasunaren aldeko aldaketak momentu batean zein ezaugarri izan ditzakeen ikusteko.

Gai honi tiraka, Kabi Alai Kuttuna eta Inauterietako kartelaren iragarpenean eman den irudia parekidea izan da. Bide batez, omendutako Veleta Elkartek ere irudi parekidea eman du. **Kabi Alai Kuttunari dagokionez**, nahiz eta gai hau ez izan udaletxearen zuzeneko ardura eta bai izan ekimen partikular bat, inauterietan garrantzia du eta omenaldi bat den heinean, garrantzitsua da, ahal den neurrian, **berdintasun-ikuspegia txertatzea omendua aukeratzeko orduan**. 2011tik hona 8 gizon edo gizonez osatutako talde omendu dira, 2 emakume edo emakumez osatutako ordezkari eta 3 eragile mistokoak⁷. Bestetik, aipatu behar da, Kabi Alai Elkartek Inauteriak berdinzaleagoen aldeko konpromisoa erakutsi duela azkeneko urteetan; besteak beste, gero eta emakume gehiago daude parodian, hurrengo “alkatea” emakumezkoa izango da eta Behatokiarekin elkarlanerako prest ageri dira.

Momentu honetan, **jaiak berdinzaleagoak bilakatzeko Behatokiak udalarentzako sortutako tresnak indarrean daude**. Holako tresnak aldaketak sisteman txertatzeko baliabideak dira, hala ere, **tresna horiek sozializatu behar dira jaietako beste eragileekin, eragina udaletik haratago joatea nahi bada**. Proposamen hau jai guztietara zabaltzen da, baina batez ere Inauterien kasuan, nolabait udalaren eragina txikiago baita jai herrikoiagoak direlako. Txosnaguneko musika horren adibide bat izan daiteke, aurtan ere maskulinizatutako eremua izan da (% 90 gizonezko musikariak)⁸ edo gaueko txarangekin gauza bera gertatzen da (% 92 gizonezkoak). Alegia, udalak musika programatzeko duen tresna sozializatuz gero, eragileei ere jaietan eragiteko tresna eta ikuspegia konpartitzeko aukera emango litzaieke. Aldiz, Karroza eta konpartsen sariei dagokionez, Udalak saritzen ditu eta sortutako berdintasun-irizpideak aplikatzen dituen neurrian, sariek berdintasun ikuspegia jasotzen dute⁹.

Aurtan jaietan **3 eraso matxista** salatu dira. Ondorioz, udalak jaietako bere **protokoloa aktibatu du**. Horretaz gain, **Indarkeria matxistaren kontrako guneak indarrean** egon dira. Pasa den urtean baino zerbitzu zabalagoa eman dute eta urtero egiten den sentsibilizazio

⁷ 9. Orrira jo honen inguruan gehiago jakiteko.

⁸ 14.tik 17. Orrira jo honen inguruko gehiago jakiteko.

⁹ 18. Orrira jo honen inguruan gehiago jakiteko.

kanpaina indarrean egon da. Protokoloek eraso gertatzen direnerako tresnak dira, eta nahiz eta ezinbestekoak izan, jaietan indarkeriarekin amaitzeko lanketak jaietatik haratago doaz.

Hiru urteren ondoren, **aldaketa batzuk finkatzen doazela sumatzen da**. Hala ere, aldaketa horiek **finkatzea hauskorra izan daitekeela** ere nabaritu dugu, aldaketa txikienak batzuetan zalantzan jar baitezake egindako aldaketa. Beraz, jai berdinzaleen bidea ziurtatzen joateko garrantzitsua da **jaietako eragile guztiak ikuspegi eta baliabide berdinak partekatzea**. Honetarako, sistemak, kanalak eta espazioak sortzeak asko lagunduko luke. Behatokiak jaietan **esparru berriak eta elkarlanerako modu berriak arakatu behar** direla uste du, hain zuzen ere, Behatokiak duen ikuspegi hedatzaileari erantzuteko eta eraldaketak bultzatzen jarraitzeko.

6. GEHIGARRIAK

Musika analizatzeko erabilitako taula:

INAUTERIAK 2024 GAUEKO KONTZERTUAK	MUSIKARIEN SEXUA			TALDEEN OSAERA			TALDE MISTOEN OSAERA			% > Mutilak
	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	NESKEZ	MUTILEZ	MISTOA	MISTOAK			
							FEMINIZATUA	MASKULINIZATUA	OREKATUA	
INCANSABLES TXARANGA		9	9		1					100
AKERBELTZ	1	4	5			1		1		80
AZKEN SUSTRAIAK		5	5		1				1	100
BALLOON FRAME	1	1	2			1				50
FRESA MORANGO	2		2	1						0
MONKEYMAN-MALEC ?			0							-
LS, EROS KrK eta KALDE SELEKTAH			0							-
NIKOTINA eta LITTLE MARTIN		4	4		1					100
JAINEKIN TXARANGA		10	10		1					100
DESGARIAIAN		4	4		1					100
AYVEE	1		1	1						0
KATU		3	3		1					100
WATSUFLY			0							-
ORIAKO TXARANGA	1	14	15			1		1		93
IRAUNKORRAK TXARANGA		10	10		1					100

INAUTERIAK 2024 GAUEKO KONTZERTUAK	MUSIKARIEN SEXUA			TALDEEN OSAERA			TALDE MISTOEN OSAERA			% > Mutilak
	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	NESKEZ	MUTILEZ	MISTOA	MISTOAK			
							FEMINIZATUA	MASKULINIZATUA	OREKATUA	
LAKET	2	5	7			1		1		71
TRIKOMA	1	7	8			1		1		87,5
ETXEPE		4	4		1					100
DJ EO		1	1		1					100
GOZATEGI		6	6		1					100
ORIAKO TXARANGA	1	14	15			1		1		93
KALEAN TXARANGA	1	11	12			1		1		91
MUXUTRUK	2	3	5							60
DEBRASS BAND		9	9		1					100
BASKBILITX		2	2		1					100
DJ JOTATXO		1	1		1					100
BONBORENEA TXARANGA	5	18	23			1		1		78
INCANSABLES TXARANGA		9	9		1					100
INCANSABLES TXARANGA		9	9		1					100
GUZTIRA	18	163	181	2	15	8	0	7	1	
GUZTIRA %	9,9%	90%		8%	60%	32%	0%	87,5%	12,5%	
GUZTIRA TXARANGAK BAKARRIK	8	104	103	0	4	4	0	4	0	

INAUTERIAK 2024 GAUEKO KONTZERTUAK	MUSIKARIEN SEXUA			TALDEEN OSAERA			TALDE MISTOEN OSAERA			% > Mutilak
	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	NESKEZ	MUTILEZ	MISTOA	MISTOAK			
							FEMINIZATUA	MASKULINIZATUA	OREKATUA	
GUZTIRA TXARANGAK BAKARRIK %	8%	92%		0	50	50	0%	100%	0	
GUZTIRA TXARANGARIK GABE	10	68	78	2	11	4	0	3	1	
GUZTIRA TXARANGARIK GABE %	13%	87%		12%	65%	24%	0%	75%	25%	

PROIEKTUAREN LIDERGOA



LAGUNTZAREKIN



PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA



943 00 35 85

info@farapi.com

Mundaiz bidea 10, 23.bulegoa
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)